

Gonzalez Ruiz de Larramendi), "Bright lights" (Maria Zabala), "Decorado" (Alberto Vazquez), "Extatico" (Azahara Gomez), "Ihesa" (Alejandro Diaz Castaño), "Jules" (Norma Vila), "Nunca pasa nada" (Javier Prieto)

Euskal zinemagileek lehiaketara aurkeztu dituzten hamaika lanak jatorrizko bertsoan eskainiko dira, euskarazko edo/eta gaztelaniazko azpitu-luekin.

Gainerako film labur gehienak Britainia Handitik, Estatu frantsesetik, eta Estatu espaino-letik iritsitako lanak dira. Aurtten, Kanadatik jasotako film labur bat ere badago. Nazioarteko lan laburrak bihar eskainiko dira, arratsaldeko zortzietan, Alondegiko auditoriumean.

Fant Laburrean sailean 3.000 euroko bi sari emango dira. Sariak, epaimahaikideen eta ikusentzuleen iritziz zinema jaialdian parte hartu duten lan labur onenei emango zaizkie. Horrez gain, euskal film labur hobereak 2.000 euroko saria jasoko du.

Sail Ofizialeko film luze onena, nazioarteko film labur onena eta euskal film labur onena aukeratzeko ardura izango duten adituen epaimahaia Melina Matthews antzezleak, Elio Quiroga idazle eta zinema zuzendaria eta gidoilariak eta Miguel Angel Vivas zuzendari, gidoilari eta kazetari sevillarrak osatuko dute.

Kristalaz bestaldeko Nemo kapitaina

Amaluz ARTOLA | DONOSTIA

Nafarroan 90 hurrek zuten gurasoren bat espetxean Castillo Suarez "Nemo kapitainaren azken bidaia" idazten hasi zenean: «Eskoletara joaten naiz nire ipuinekin eta haurrak hasi ziren kontatzen zertan egiten zuten lan beren aitek. Ba-

tek, berea Valentzian zegoela esan zuen, eta automatikoki, 'Picassent-en?', galdegin nion. Pentsatu nuen haur hark behar zuela bere ipuina». Hala hasi zen ernatzen espetxean duen aitari bisita egitera doanean "Nautilus"-eko kapitainarekin abentura berria bizitzera doala irudikatzen duen Nadia

neskatoaren istorioa. «Ez zaizkio presondegiak gustatzen, eta bere mekanismoa bere bizitza politagoa egiteko da aita itsasoan duela irudikatzea», azaldu zuen Suarezek Ereinekin argitaratu duen libururaren aurkezpenean.

Aitziber Alonsoren ilustrazioak daramatzan liburu ho-

netan zehar, haurren irudimenean sartzen da irakurlea baina baita bere errealtatean ere: Nadiak furgonetako bidaiez, aitarekin dituen bisitez eta, oro har, espetxeaz duen pertzepzioaz hitz egingo du 60 orrialdeetan zehar. Haurrak dituen zalantza eta beldu-rrak ere agertzen dira.

Ipuina osatzeko, gurasoren bat espetxean duten hainbat familiarekin bildu da Suarez. «Haur guzti horien historia kontatu nahi nuen, baina betiere errespetuz, horregatik zenbait haur eta gurasoren laguntza bilatu dut».

Printzesa ezerosoak

Suarez lanarekin batera aurkeztu zuen Ereinek Arrate Egañaren "Printzesa puzkertia"-ren berrargitalpena ere, Manu Ortégaren irudiak daramatzana. 1998an Baporea Saria irabazi zuen eleberri honetako protagonistak digestio-arazak benetako arazo gisa biziko ditu printzesa ezagutzen duenean eta horri irtenbidea emateko asmoz jauregitik irten eta egiten duen bidaia bere bizitza goitik behera aldatuko du. «Pertsonaia arketipikoak dira; niretzat inportantea zen neska-heroiaren ibilbidea», esan zuen Egañak.



Castillo Suarez eta Arrate Egaña, euren liburuak esku artean dituztela.

Juan Carlos RUIZ | ARGAKZI PRESS